CHARAMELA. *Bertso ta erri-kanta bilduma.* Imp. Laharrague. Bayonne.

Oraindik argitaratu berri da. Eun da ogeita bost kantu dakarzki bere 128 orrialdeetan.

Xalbador bertsulariari buruz mintzatzen ari giñelarik, J. M. Lekuona-ri esker, arkitu nuan liburutxo au. 37-garren orrialdean argitaratzen bai dira Xalbadorren "Esperantzarik gabeko amodioa" bertsu aipatuak. An bai dala poesia eta ez gure beste zenbait olerkariren artean.

Mugaz andiko zenbait kantu samurren artean emengo batzuk ere azaltzen dira.

Ta nik ez dakit zergaitik, baña alde artako argitalpenetan maizago arkitzen ditugu kantak, diran bezela, emen oitzen dan konponketa gabe.

J. S. M.

EIBARKO UDALA
ARRA